

Oier Arrolaza

DANTZARIA

Dantza pasteurizatua

San Antonio egunez Urkiolan adina erroskila salduko zituen bere garaian “munduko musikak” zigilua asmatu zuenak. Orain berriz, kexu dira ez dela disko alerik saltzen, ezta etiketa guaiena jarrita ere. Salmentak urri izan arren markak bide egin du eta “munduko musikak” etiketak funtzionatzen jarraitzen du –mundukoa ez den musikarik ba ote dagoen argitu ez badigute ere–.

Dantzariak hor gabiltza, munduko musiken ustezko arrakastaren aparretan igeri egin nahian. Modernotasunaren aitzakian etxeko atek ireki ditugu, eta flamenkoa zein sabelaren dantza zortzikoa baino “gureago” ditugu orain. Garaikidetasun lasterketetan homologazio bila gabiltza eta break-dancean ere doktoratzeko puntuan gaude. Baina, dantza tradizionalak ia disimuluan lurperatzekotan gauden honetan, modernoetan-modelnoenak esandakoekin hankaz gora etorri zaigu estrategia osoa.

Cesc Gelabert, abangoardiako dantzari eta koreografo katalanak esan digu garrantzitsua dela munduko bazter batean txokoa hartzea, horixe baita unibertsal egingo gaituena: gure txokoko berezitasunak besteei erakustek. Alegia, euskararen inguruko diskurtso soziolinguistikoetan entzuten genuena, euskara zela Babelgo dorrean sartzeko giltza, eta euskara



DANI BLANCO

bezala jalgi behar dugula dantza munduko plazara.

Aniztasuna bakoitzaren abiapuntuarekiko fidelitasunean oinarritzen dela gaineratu digu Gelabertek. “Baina erne! –gaztigatu digu sortzaile katalanak–, inoiz ere ez ezjakintasunik!”. Beste toki batzuetan zer egiten den ezagutu eta gure beharraren arabera erabiltzeko jarrera irekia izan behar dugu dantza garaikideko guruaren esanetan.

Mundu oso bat dugu klik batera. Sukaldea egurasteko leihoa ireki eta urakanak airean garamatza. Beraz, hautatzen jakitea, –kriterioa esaten dioten hori–, omen da munduko (Ilargia eta Marte barne) musika eta dantzen ozeano honetan ez itotzeko arraunik eraginkorra. Input uholde horren aurrean irizpide sendorik ez badugu, modaren eta azken joeren sarean galdu eta arrunt bihurtuko gara. Mundura homologazio bila ateratzen garen bakoitzean homogeneizatuta eta pasteurizatuta itzultzen gara.

Ez dugu dantza pururik, kanpotik jasotako ekarpenak bertako tenperatura eta hezetasun baldintzetan irabiatutako pureak baizik. Baina errezeta propio horiek dira gure unibertsaltasunaren froga agiri, eta horiek beharko genituzke dantzaren mundurako, munduko dantzetarako zein munduaren dantzarako gure ekarpen zintzo. ■

«
Mundura homologazio bila
ateratzen garen bakoitzean
homogeneizatuta eta
pasteurizatuta
itzultzen gara
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



H o g e i t a
hamar urte,
gure bizitza-
ren erdia. Bai-
gorriko elizan ospatutako kontzertuaren

biharamunean ari natzaizue hau idazten, atzoko zirrarak aje. Hogeita hamabost urte dira inguru hori bizitzen hasi nintzela Daniel Landart enbaxadore: Guk taldearen *Aita seme laborari* musikaldia. Eneko Labegeri izan nuen kantu lagun eta asteburutan barnealdeko bidaietan txofer-gidari aditua. Iholdiko toberak eta *Etxe sartzea* obra, gero baigorriarrek Usurbilko herrira eraman zutena. Kultur militantziaren azkarrak Nafarroaren Eguna izan zuen geltoki berezia, sozialki sakon garatua, fundamentuz

Nafarroaren Egunak

antolatua. Gure Eltzegor taldearen hastapenetatik bertako gaiteroak etxeko izan ditugu. Hogeita bost urte badira elkarrekin ari garela mundua sortzen eta elkar elikatzen, ingurua eraikitzen kalapita zenbait bidai-de. Atzo ez ginen guztiak hor. Bidean gelditutakoak eta guregandik bortxaz urrunaraziak falta genituen gure kantuen erakarle izan zirenak. Basaizea eta Bixentainia, biak osasuntsu eta gaztez horniturik ikusita, harrotasun puntu batez biziara ziguten atzokoa, gure arteko ezkutuko konplizitatea motore. Eguraldi gaiztoa dute gaur, noizbait atertuko denaren esperantzan haziak asmatuko dute berriz ere ospakizunean. ■